

# hondo-hondotik

Helena Zubillaga

(Pediatria)

## 0-3 urtekoen zikloa, behin eta berriz

**Z**ergatik aukeratzen dut izenburu hau? Zergatik idazten dut *behin eta berriz*? Izenburu hori irakurtzean, norbaitek pentsa lezake gai horri buruzko iritzi desberdinak irakurtzeaz eta entzuteaz bete-bete eginda nagoela. Benetan, ordea, ez da horrelakorik. Izenburu hori jartzean, hau pentsatzen dudalako izan da: gai honetaz ez dela oraino ia ezer aztertu, idatzi eta antolatu. Halere, dakigunez, bada salbuespen bat: Arizmendi ikastolako profesionalak abian jartzen ari diren Hazi-tegi Egitasmoa, hain zuzen ere; eta, bide batez, neure begirunerik eta konfiantzarik handiena azaldu nahi diet profesional horiei, ongi egingo dutela edota hala egiten saiatuko direla uste baitut.

Profesional horiei ez bezala, zail gertatzen zait niri 0 urtetik hasitako heziketaren egitasmoaren alde nahiz kontra agertzea. Alde ateratzen banaiz, kontra-esanez beterik ikusten dut neure burua: izan ere, azkeneko urteotan zuzenean ari naiz ikusten nola ari diren egiten gurasoak eta irakasleak 2 urteko haurren heziketa, eta adin horretako haurrak, hau da, istorio horretan garrantzizkoenak diren horiek —ez dezagun ahaztu— zer nolako esperientzia bizitzen ari diren ikusten ere bai.

Badakit 2 urtetatik hasitako heziketa gauza aski berria dela, eta oraino ez dagoela aski datu esperientzia horretaz kalitateko azterketarik egiteko; baina nire konklusioak pediatria izateak dakarkidan eguneroko esperientzian oinarriturik daude; izan ere, nire lanbideak harreman bizian jartzen nau haur horiekin. Horregatik, haur horien garapen fisikoan, psikikoan eta emozionalean eskolatze goiztiarrak zer-nolako eragina duen agertu nahi nuke lerro hauen bidez.

Haurraren eta gaztetxoaren osasun osoaren sustatzaile naiz. Horregatik, kezka handia sortzen dit haur batzuk etxetik eta amagandik bereizteak dakarren (eta kontuan hartzen ez zaien) zailtasun deigarriak; kezka handia sortzen dit haur batzuk lo egiteko edo/eta jateko orduan nahasmenduak sumatzen hasten direla (eta ez dela hori kontuan hartzen) ikusteak; kezka handia sortzen dit haur batzuei tristura edo/eta agresibitate sintomak nabari ohi zaizkiela (eta ez dela hori ikusi nahi izaten) ikusteak; kezka handia sortzen dit lehenago izaten ez zituzten gai-



Umeak jolasean, Donostiako Ategorritxu haur eskolan.

xotasunak nabari ohi zaizkiela (eta ez zaiela atsedetik ematen) ikusteak. Jakina, edozeinek erantzungo dit hau: horrelakoak gutxienak dira, eskolatzen diren guztiekin konparatuz. Beno...

Askok kezkatzen nau zenbait gurasoren duda-mudak, beren haurtxoak eskolara eramatean ongi jokatzen ari ote diren galdetzen baitute; asko kezkatzen nau zenbait gurasoren duda-mudak, ez baitaite zergatik eramaten dituzten eskolara bi urtez azpiko beren seme-alabatxoak. Honek kezkatzen nau batez ere: zenbait gurasok, berez eskolatze goiztiarren kontra egon arren, uste dutenaren aurka erabakia hartzen dute presio sozialaren eraginez; honek kezkatzen nau azken batean: beren seme-alabatxoak nola hezi erabakitzea zuzenean gurasoen esku ez egoteak.

Askok kezkatzen nau, une askotan eta

beren garapen psiko-motorea eboluzionatzeko orduan nagiago diren haurren kasuan, zenbait andereño (andereño diot, adin horretako haurren ardura gehien-gehienetan emakumeen esku baitago) zein bide jarraitu ez jakiteak: edota hezkuntzatik ezarria edota haur jakin horri dagokiona.

Horiek horrela, eta 0-3 urtekoen zikloan antzeko zerbait gertatuko dela pentsatuz, Karin Grossmanen iritziari atxikitzen natzaio puntu honetan: «Haurtxo hauen heziketaren arduradunek halakotarik amaren laguntzaile izan behar dute, afektibitatez, sentiberatasunez, begirunez eta aurreikuspen babeslez jokatzuz». Neure aldetik, hau gehituko nuke badaezpada: afektibitate Handiz, sentiberatasun Handiz..., Handiz..., Handiz.

Horrenbestez, badirudi gauza erraza dela helburu horiek betetzea. Neure al-

detik pentsatzen dut gure haurtxoen eta gaztetxoaren heziketaren arduradun guztiei konpromiso handia eskatzen diela horrek. Guztiak esatean, gurasoez (aitaz eta amaz), eskolako hezitzaileez, psikologoez, osasun-zerbitzuekoez, gizarte laguntzaileez, politikariek eta abarrez ari naiz. Eta konpromisoa esatean, ez naiz ari formazio eta prestaketa on batez egin litekeen lan on batez bakarrik; beste hau dut, batik bat, gogoan: jatorrak izatea eta, gauza guztien aurretik eta gauza guztien gainetik, beren bizitzako ibilbidea, batzuetan ahalegin handia eginez, hasten ari diren pertsona *handi* horien ona zein den pentsatuz jokatu behar izatea.

Aipatzen ari naizen konpromiso honek, neuri dagokidanez, galdera-saila dakarkit burura: lerro hauez baliatuz, aierera bota nahi dut, nork jasoko ere. Hona, adibidez: zertan aldatu da haurtxoaren garapen psiko-motorea, ia jaio orduko eskolatzea gaur egun mesedegarri gerta dakion? Zein mesede-mota dakarkio haur jaioberriari eskolatzeak? Nola hobetu dezake haurtxoaren trebetasun soziala adiskideekiko haren harremanak hain garaiz hasteak? Zergatik dira mesedegarriago eskolako harreman horiek, eta zergatik ez dira nahikoa herriko parkean izan ditzakeen harremanak? Zertan oinarritzen gara esateko haurtxo hauekin Herbeheretan eta Ameriketako Estatu Batuetan egiten dena egokiena dela gure haurtxoentzat?

Jatorrak izatean datzan konpromisoaz hitz egitean, horretaz guztiaz ari naiz. Beraz, geure haurtxoentzat mesedegarriena den egitasmoa gauzatzea geure esku edota, hobeto esanda, geure buruan badugu, ekin diezaiogun. Geure esku edota buruan horrelakorik ez badugu, egin dezagun geldialdi bat, interesgarriena zer den behin eta berriz aztertzeke. Bestela, gauzatzen ari garen egitasmo horrek guztiak, abian jartzen ari garen aldaketa honek guztiak zera pentsaraziko digu: jarduera horretan guztian geure interesek mugiarazten gaituztela; ez gaituztela mugiarazten, alegia, beren bizitzaldia orain hasten ari diren eta alditxo baten ondoren gurea ere izango den gizarte osatuko duten pertsona horien heziketak eta formazioak.

## esaldiak

«Historian, une benetan garrantzitsuak izan direnean, Espainiako Monarkiak berea inposatu izan du»

**FLOREN AOIZ**

(‘La vieja herida’ liburuaren egilea)

«Niretzat preso sozialak preso politikoak dira. Sozialak deituak diren presoak egoera politiko baten ondorioa dira»

**JOSE MARI LARRAÑAGA**

(Preso ohia)

«Imajinatu sukaldeko errejeta bat kopiatzeagatik espetxean sartzen zaituztela. Ordenagailuen programekin horixe egin dute»

**RICHARD STALLMAN**

(Software askea mugimenduaren sortzailea)

«Lehen borrokaldia ez da sekula ahazten. Pentsatzen nuen: ‘Ezagutzen ez dudan mutil honekin mutur joka nola hasi behar dut bada’»

**ION TREKU**

(Boxeolaria)